Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2560

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 26koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, «Programa crediticio - Familias Chile Solidario Región de Santiago» hitzarmenean Txileko Santiagoko eskualdeko hiri-gobernuari emandako diru-laguntzaren zati bati uko egiteko aurkeztu den eskabidea onartzen duena.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura proiektuei eman beharreko laguntzak arautzen dituen otsailaren 28ko 50/2006 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak honela dio: «Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak herrialde pobretuen aldeko garapen programak kofinantzatu ahal izango ditu GLSFren kontura, Estatuko Administrazioarekin, Autonomia Erkidegokoekin, Foru Aldundiekin, Udalekin, Europako Eskualdeekin eta zuzenbide publiko edo pribatuko beste pertsona juridikoekin. Hori hala egingo da, proiektuaren xede edo izaeragatik, aurreko kapituluetan araututako deialdi publikoan parte hartu ezin badute (gorabehera hau aurrez arrazoitu behar dute), beti ere aurrekontuko diru kontuek horretarako aukera ematen badute. Kofinantzatzeko hitzarmen hauek, Gobernuko Kontseiluak onartuko dituelarik, orotarako bere xedapenen arabera arautuko dira».

Proiektuan aldaketa garrantzitsurik egiteari buruzko klausula berezirik ez dagoenez, GLSFen ezarritakoa aplikatuko da. Aipatutako dekretuaren 28. artikuluaren 1. atalak dioenez, erakunde eskatzaileak ekintza gauzatzerakoan sartu nahi diren aldaketen berri emango dio, aurretik, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta aldaketa horiek aurrekontuan izango duten eragina zehaztuko du. Proposatutako aldaketak onartzea Garapen Lankidetzarako zuzendariaren eginkizuna da.

Aipatutako hitzarmena 2006ko azaroaren 25ean sinatu zen. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez, Txileko Santiagoko eskualdeko hiri-gobernuari 200.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion, «Programa crediticio - Familias Chile Solidario Región de Santiago» hitzarmena gauzatu zezan.

Txileko Santiagoko eskualdeko hiri-gobernuak Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari bidalitako idazkian esaten zuen uko egin nahi ziola diru-laguntzaren bigarren ordainketari (100.000 euro), hitzarmena ga-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

2560

RESOLUCIÓN de 26 de marzo de 2010, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la renuncia parcial a la subvención concedida al gobierno regional metropolitano de Santiago de Chile en el marco del convenio «Programa crediticio - Familias Chile Solidario Región de Santiago».

La disposición adicional primera del Decreto 50/2006, de 28 de febrero, por el que se regulan y convocan ayudas a proyectos con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo, establece que: «La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi podrá establecer con cargo al FOCAD convenios de cofinanciación de programas de desarrollo a favor de países empobrecidos con la Administración del Estado, Comunidades Autónomas, Ayuntamientos, Regiones Europeas y otras personas jurídicas de derecho público o privado, cuando, por razón del sujeto o de la naturaleza del proyecto, no pueden concurrir a la convocatoria pública regulada en los capítulos anteriores, previa motivación de esta circunstancia, siempre que las disponibilidades presupuestarias lo permitan. Estos convenios de cofinanciación, que serán aprobados por el Consejo de Gobierno, se regirán en todos su términos por las disposiciones de los mismos».

En ausencia de cláusula específica para las posibles modificaciones sustanciales en los términos del proyecto, son de aplicación las de la norma general del FOCAD. Así, el apartado 1 del artículo 28 del decreto señalado establece que la entidad solicitante informará previamente a la Dirección de Cooperación al Desarrollo de las modificaciones que pretenden introducirse en la realización del proyecto, especificando las repercusiones presupuestarias que implican. Corresponde a la Dirección de Cooperación para el Desarrollo aprobar las modificaciones propuestas.

La firma del convenio señalado se celebró el 25 de noviembre de 2006. Por Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se concedió a la entidad Gobierno Regional Metropolitano de Santiago de Chile una subvención de 200.000 Euros para la realización del convenio «Programa crediticio - Familias Chile Solidario Región de Santiago».

El Gobierno Regional Metropolitano de Santiago de Chile en comunicación dirigida a la Dirección de Cooperación al Desarrollo con fecha 8 de febrero de 2010, formuló una solicitud de renuncia parcial

ratzeko eta behar bezala justifikatzeko epeak betetzen berandu zebilelako.

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak diru-laguntzaren erakunde onuradunak eskatutako aldaketen aldeko irizpena eman du, eta horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Txileko Santiagoko eskualdeko hirigobernuak «Programa crediticio - Familias Chile Solidario Región de Santiago» hitzarmenean 2006ko GLSFren kontura eskatutako diru-laguntzaren zati bati uko egitea (100.000 euro).

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gizarte Gaietako sailburuordeari zuzenduta. Ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 26a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

al segundo pago de la subvención por importe de 100.000 euros, debido a un atraso en el cumplimiento de los plazos establecidos para el desarrollo y debida justificación del Convenio.

La Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de los cual,

RESUELVO:

Primero.– Autorizar la renuncia parcial de 100.000 euros solicitada por la entidad Gobierno Regional Metropolitano de Santiago de Chile en el marco del Convenio «Programa crediticio - Familias Chile Solidario Región de Santiago» con cargo al FOCAD 2006.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de marzo de 2010.

La Directora de Cooperación al Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.